



LIBURVAK

JUAN SAN MARTIN: *Escritores euskéricos*. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca, 1968.

Araubide ta zentzu onez egiñiko liburua, askorentzako ongarri izango dana. Sarritan gertatzen jakuna da, gaurko euskal idazleen barri gitxi edo ezer ez jakitea. Liburu au jatorku utsuna ori betetan. Laureun eta geiago idazleen txartelak agertzen dira bertan: laureun eta amairu kontau dodaz nik. Gure gizaldiagaz jaiorikoak, edo 1940'garren urtetik geroago il direanak. Eztagoz danak or, jakiña. Egilleak berak esaten deusku itzaurrean, seireun inguru izango gareala euskal idazleok, errietako barri-emoteilleak kontuan artu ezkeru.

Euskal idazleen txarteltegi bat egiten asteko saio bat eta besterik eztala, diñousku San Martiñek, baiña ori baiño geiago da liburu au, egia esateko. Bizitza ta egille danen edo beintzat askoren barriak agertzen dira txartel bakoitzean, eta bildur barik artu leike txartel pillo bat ortik idazleen iztegiatarako be, kritika-iritziekin ornidu ezkeru pixka bat. Aberatsa da oso, idazle bakoitzak erabili dabezan izengoitiak aitatzean. Baita bibliographia be ondo beteta dator, bakoitzak zer idatzi daben, eta nun.

Ez da sarrera aundia egilleak berak eskeintzen deuskuna, baiña tinkoa ta barri ugari emoten deuskuna bai. Erdera-izkuntzetatik euskeratu diran idazleen izen-lerro luzea dator gero (eun eta geiago), eta erretratutegia gero, azkenengo orrialdietan.

Bateri baiño geiagori etorriko jako euskal idazlea izateko deia, liburu au irakurri ta gero. Euskerea ikasteko gogua be bai, askori.

Euskeraz jakin eta erderaz bakarrik idatzi dabiennen barruari kontuak eskatzeko bidea be izango dala uste dot.

Ez deusku bier txikia egin San Martin adiskide langilleak. Euskal Kulturari be badaki berea emoten Eibarrek, etxurea danez, eta zorionean.

N. A.G.

